Irungo euskarazko hamabostekaria

Urtarrilak 1, 2018
316

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Ricardo Requejo
4 Ametsa Abesbatza
5 Argazki erreportajea: Santo Tomas
6-7 Argazki erreportajea: Eguberriak
8 Udal kirol instalazioen berrikuntza
9 Kirolak: David Ortega
10 Kolaborazioa: Gorka Martinez
11 Maurren leihoa
12 Bertsoak / Gazteen lanak
13 Beti Gazte: Gazte Udalbatza
14 Gazte Informazioa
15 Agenda

Eskaintza bereziak
DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK
HADE
Maila guztiak | H.A.B.E titulu ofizialak | EGA
Azterketen prestaketa (Hizkuntz eskakizunak | IVAP | IRALE)
ON-LINE ikaskuntza | Guraso taldeak.
Zorionak eta Urte Berri on!
Nafarroa kalea, 13 | IRUN (20302) | (Matrikula tlf.) 943-635-266 | herrijakintza@gmail.com

AZPIAZU BARANDIARAN, PRIMITIVO

Musikaria. Zumarragan jaio zen, 1912ko maiatzaren 12an. Fermin Azpiazu aitarekin hasi zituen musika ikasketak. Zumarragako Udal Bandako zuzendaria zen aita, eta zazpi urte zituela, bandako flauta jotzaile bilakatu zen Primitivo Azpiazu. Beranduago, Donostiako Musika eta Orkestra Sinfonikoko Udal Bandako kide ere izan zen. Irungo Udal Musika Bandan, zuzendaria, konpositorea eta moldatzailea izan zen. Irungo Udal Musika Akademian irakasle aritu zen.

Bere ibilbidean, 100 partitura baino gehiago konposatu zituen. Besteak beste, Real Unionen ereserkia, Irungo Euskal Jirarena, sardinaren ehorzketako hileta martxa, Irungo Atseginaren martxa eta hainbat eta hainbat polka eta pasodoble. 1990ean zendu zen.

Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena
Unai Oiartzun

Euskara zuzentzilea:
Unai Oiartzun

Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal
Amaia Terrazas
Ion Otxoa

Diseinuaren eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:
1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 2052

www.irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Irun Hiriko Urrezko Domina jaso du Ricardo Requejok

Musikariak interprete eta irakasle gisa egin duen lana saritu du udalak

“Musikenen eman ditudan urteetan ikusi dugu Irungo gazteak ondo prestatuta doazela”

Ricardo Requejo, musikaria

Irungo Udalak eskaintzen duen sari nagusia jaso du Ricardo Requejo (Irun, 1938) musikariak: Irun Hiriko Urrezko Domina. Ametsa Abesbatza Kultur Elkarteak egin du proposamena, hiriko hainbat kultur, gizarte eta kirol elkarteren babesarekin. Udal talde politiko guztiek onartu dute. Abenduaren 16an jaso du, udaletxeko areto nagusian, senide eta lagunen aurrean, eta udal ordezkari guztien parte hartzearekin.

Ekitaldi instituzionalean, José Antonio Santano Irungo alkateak azpimarratu du pianista handia baino gehiago dela Ricardo Requejo: “Merituak aitortzen ditugu, baina balioak ere bai”. Requejok, hunkituta, eskerrak banatu ditu, ezker eta eskuin. Baieztatu du, gaur egun, musikarekiko duen maitasuna eta pasioa handiak direla oraindik. Betiko helburuari eusten diola ere adierazi du: “Nire ekarpena egin nahi nuke, musikak, pixkanaka, gizartean merezi duen lekua eduki dezan”.

1938an jaio zen Ricardo Requejo, Espainiako Gerra Zibil betean, familia umil batean. Eguzkitza kalean eman zituen lehen pausoak, eta lauzpabost urterekin, Uranzu kalera lekualdatu ziren. Garai hartan, senideen diziplinaren eta esfortzurako ahalmenaren jabe egin zela aipatu du Requejok: “Nik anaiaren urratsak jarraitu nahi nituen. Berak eraman ninduen musika eskolara, Primitivo Azpiazu irakaslea ikustera. Hark esan zidan gazteegia nintzela, eta hurrengo urtean bueltatzeko”. Anaiarekin hasi zen musika ikasten, etxean. Musika eskolara itzuli zenerako, lehen mailako metodoa buruz ikasia zuen.

Primitivo Azpiazu irakasleak oboea jarri zion eskuetan, eta beranduago, Teodoro Muruak, bandan sartu zuen Requejo, 13 urterekin. Adiskide handi bat egin zuen, garai hartan: “Fernando Etxepare ezagutu nuen. Musikari handia, eta are lagun hobea”. Ametsa abesbatzaren sorreran parte hartu zuten biek, Requejok eta Etxeparek: “Olentzero koruekin hasi ginen. Etxepareren aitaren zurgindegitik ateratzen ginen, Santiago kaletik. Pentsatu genuen jarraipena ematea, eta urte osoan zehar entseatzen hastea”.

Musikari ibilbide oparoaren hasiera

Hamazazpi urterekin, piano ikasketak amaitu zituen Donostiako Udal Kontserbatorioan, karrera amaierako saria eskuratuz. Hezkuntza Ministerioak beka bat eskaini zion, Parisen piano ikasketei jarraipena emateko. “Parisen, Irungo etxe batean hartu ninduten: Agesta familiarenean”, gogoratu du Requejok: “Eskarne Agestak ikaragarri lagundu ninduen, nik ez nekielako frantsesez”. Dartington-en (Erresuma Batua), Santiago de Compostelan, Cascaisen (Portugal) edo Sienan (Italia), ere aritu zen, bere formazioan sakonduz.

Interprete gisa egin duen lanaz gainera, musikaren irakaskuntza izan da Ricardo Requejoren fazeta nagusia. Hanburgoko Musika Eskola Nagusian hasi zen, eta Madrilgo Kantu Eskola Nagusian ere ibili zen, beranduago. Azken urteetan, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian aritu izan da. Harro dago, era berean, Irungo Udal Kontserbatorioa martxan jartzeko egin zuen lanarekin: “Arrakastaz bete genuen helburua. Musikenen eman ditudan urteetan ikusi dugu Irungo gazteak ondo prestatuta doazela”.

Irun Hiriko Urrezko Domina

Ohoreen eta Aitortzen Araudia onartu zuen Irungo Udalak 2003an, eta harekin, Irun Hiriko Urrezko Domina. Irunen bizikidetza, tolerantzia, zintzotasuna edo elkartasunaren moduko balioak sustatu dituzten pertsona edo elkarteak saritzeko helburua du. José Ramón Amunarriz, Menchu Gal, La Salleko anaiak, Agustin Ugarte, Gipuzkoako Odol Emaileen elkartea, Jaime Rodriguez Salis, Real Union eta José Ramón Iruretagoiena *Irure* izan dira sarituak, orain arte. Zerrenda horretan sartu da, aurten, Ricardo Requejo musikaria.

Olaizola Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Duela hirurogei urte sortu zen Ametsa abesbatza, Gabon kantuak abesteko

Lau koru eta 150 kide inguru ditu, gaur egun, elkarteak

Lotura estua du Ametsa Abesbatzak Eguberriekin. Emanaldi sorta ederra edukitzen du urtero, abendu inguruan. Baina gainera, abesbatzaren sorburua bera, Gabon kantetako koru bat da. Fernando Etxepare zena eta Ricardo Requejo musikaria aritu ziren tartean. "Eduki zuten arrakasta kontuan hartuta, urte osoan zehar entseatzen jarraitzea erabaki zuten", azaldu du Jokin Babaze Ametsa Abesbatza Kultur Elkarteko lehendakariordeak. 1957ko Eguberrietan, duela hirurogei urte hasi zen abesbatzaren ibilbidea.

Gizonezkoen koru gisa hasi zen Ametsa, baina emakumezkoak batu zitzaizkion 1964an. "Abesbatza sinfoniko bihurtu zen orduan", azaldu du Babazek. 60ko eta 70eko hamarkadak izan ziren Ametsa abesbatzaren urrezko aroa. Europa osoan zehar bidaiatu zuen, eta sari nagusiak eskuratu zituen gainera, Italiako Arezzokoa, adibidez. "Garairik onenetan, jaialdietara joateko, egunero entseatzen zuten, urte betez, gutxienez. Hori, gaur egun, pentsaezina da. Horrelako konpromiso maila bat ez da jasangarria", argitu du Jokin Babazek.

Garai hartako mailarik ez du, gaur egun, Ametsak. Hala ere, erreferentea da Irungo instituzioen artean. Babazek nabarmendu du Irun erdiak eduki duela loturaren bat Ametsa abesbatzarekin: "Jendeak maitasun handia dio, hori kalean ikusten da. Hori da gure zigilu nagusia". Irunnen egiten diren ekitaldi nagusiekin duen konpromisoarekin bueltatzen du abesbatzak babes sozial hori.

Irundik kanpo ere ezaguna da Ametsa. Horren berri ematen du, bozeramaile aproposa da Jokin Babaze. Donostiako Orfeoiko abeslaria eta Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko idazkari nagusia da. Gipuzkoa mailan Ametsa estimatua dela baieztatu du. Gogoan du, Fernando Etxepare zendu eta bizpahiru egunetara, afaria eduki zuela Donostiako Orfeoiarekin, Santa Zezilia egunaren harira: "Jose Antonio Sainz Alfaro zuzendariak hitza hartu zuen, Fernando Etxepareren aldeko topa eskatzeko. Gogoratu zuen Gipuzkoa mailan abesbatza musika gehien bultzatu zuen pertsonetako bat izan zela".

"Abesbatza bakoitzak bere jarduera dauka, baina saiatzen gara elkarlan bat sustatzen"

"Garairik onenetan egunero entseatzen zuten"

Jokin Babaze, elkarteko lehendakariordea

Lau abesbatza dira gaur egun

1972.urtean, Ametsa Txiki sortu zen, Gipuzkoako lehen haur abesbatza. 2004an, aldiz, Ametsa Gazte, haurren eta helduen koruen arteko trantsiziorako. 2006an, Betiko Ametsa sortu zen, adineko kide batzuen eskutik. "Ikusi zuten ez zirela gai Ametsak eskatzen zuen lan erritmoari eusteko. Baina ez zioten abesteari utzi nahi", azaldu du Babazek.

Lau abesbatza ditu, beraz, Ametsa Abesbatza Kultur Elkarteak. 6 eta 90 urte arteko 150 kide ditu, guztira. "Abesbatza bakoitzak bere jarduera dauka, baina saiatzen gara elkarlan bat sustatzen. Kontzertu batzuetan batera aritzen gara", aipatu du Babazek. Tailerra ere badu Ametsak, haurrei zuzendutako formazio musikalerako. Haurrak erakartzea zaila dela onartu badu ere, egungo taldearekin kontent dagoela baieztatu du Jokin Babazek: "Momentu honetan oso pozik gaude, talde motibatua dugulako. Etorkizuna bermatua dagoela esan genezake".

Gabonekiko lotura

Eguberrietako Kontzertua eduki berri du Ametsa Abesbatzak, abenduaren 27an. Bertan, elkartean 50 urte bete dituzten kideak saritu dituzte. Azaroaren amaieraz geroztik, agenda betea eduki du Ametsak. "Abesbatza gehienek edukitzen ditugu emanaldi dezente Gabonetan. Orokorrean, eta Euskal Herrian, bereziki, musikari eta kantuari biziki lotutako jaiak dira", azpimarratu du Jokin Babazek: "Gabon kantak direla, kontzertu solidarioak direla, beti dago aktibitate berezia data hauen inguruan. Kontuan hartu behar da, gainera, musikarion patroia, Santa Zezilia, azaroaren 22an dela. Gertutasun horrek eragiten du azaroaren amaieratik aurrera, musika jarduera asko edukitzea".

Santo Tomas eguna Irunen



www.bertako.eus - info@bertako.eus

bertako
igogailuak | ascensores

- ✓ 24 orduko asistentzia abixu guztientzat
- ✓ Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak
- ✓ Orotariko zerbitzua 100 € -tik aurrera
- ✓ Euskerazko zerbitzua
- ✓ Eskatu zure aurrekontua 943903450

EGUBERRIAK

CENTRO KINEESIS

- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

www.kineesis.net www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

K IRUNEN

Eguberrietako irudiak: Gabon Gauko abesbatzak, Olentzeroren etorrerako desfilea eta Zabaltza plazako izotz pista.

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Udal kirol instalazioetan berrikuntza handiak helduko dira 2018an

Txingudi Tenis Kluba eta Uranzu pilotalekua eraberrituko ditu udalak

Irungo Udalaren 2018ko aurrekontuen zati handi bat hartuko dute zenbait kirol instalazio eraberritzeko proiektuek. Txingudi Tenis Klub ohiaren instalazioen zati bat zabalduko du udalak, alde batetik, igerilekuekin eta gune berdeekin. Bestetik, Uranzu pilotalekua eraberritzeko lanek aurrera egingo dute. Bi horiek izango dira inbertsio nagusiak.

2018ko udaran zabalduko ditu udalak Txingudi Tenis Kluba zenaren instalazioak. Lehen fasean, igerilekuez eta berdeguneez osatutako espazioa irekiko du. Bi solairuko eraikin berri bat altxatzen ari dira bertan, hasteko. Igerilekuari dagokionez, egungoa zaharberrituko dute, alde batetik (706 m2). Haurrentzako beste bat eraikiko dute, jolasteko materiala edukiko duena (638 m2). Igerilekuen inguruan, 2.060m2ko espazio berdea egongo da.

1.942.686 euroko aurrekontua edukiko du Txingudiko instalazioen lehen faseak. Construcciones Zubieder, Construcciones Mariezcurrena eta Urbycolan enpresek osatu duten UTE Tenis Txingudiri esleitu dizkiote lanak, zazpi hilabeteko epearekin. San Martzial mendira doan errepidean dago kirol gunea, autobidearen gaineko zubia pasata, eskuin aldean.

Martxan dira Uranzuko lanak

Uranzu pilotalekuaren eraberritzeak jasoko du partida ekonomiko handiena, kirol instalazioei dagokienez. Ez aurtengoa bakarrik, urtetakoa baizik. 4,23 milioi euroko aurrekontuarekin eta hamahiru hilabeteko epearekin esleitu dio udalak Obras Especiales Edificación-Infraestructuras SAU enpresari. Gipuzkoako Foru Aldundiak 600.000 euroko ekarpena egingo du.

Lan sakona izango da. Frontisa eta ezker pareta mantenduko dituzte, baina gainerako elementu guztiak hutsetik eraikiko dituzte. 4.163,23 metro koadroko eraikina izango da, egungo frontoi txikia barne hartuko duena. Ikusleentzako sarrera nagusia Sarjia parkean egongo da, eta gainerako solairuetara igotzeko edo jaisteko eskailerak eta igogailuak edukiko dituzte erabiltzaileek eskura. Junkal kalean beste sarrera bat egongo da, hala ere, jokalarientzat eta epaileentzat, besteak beste.

Pilota partidetan izango du eserleku gehien Uranzuk. 727ra helduko da, jaso daitezkeen harmailak edukiko baititu. Eskubaloi partidetan txikiagoa izango da edukiera. Kantxaren azalera, harmailak jasota, 19,85x43koa izango da. Harmailak, aldagelak, komunak eta biltegiak ere egongo dira. Frontoi txikiak bere funtzioa betetzen jarraituko du, baina bigarren solairu bat edukiko du. Bertan, balio anitzeko hiru areto egongo dira. Lehen mugimenduak hasi dira, jada, pilotalekuan.

Fitness aretoak berritu dituzte kiroldegietan

Hogeita hamar bat makina berri dituzte Azken Portu eta Artaleku kiroldegietako gimnasioan. 100.000 euroko inbertsioa egin du Irungo Udaleko Kirola arloak horretarako. Kardio makinak dira: zintak, eliptikoak, bizikletak etab. Ukimen bidezko pantaila interaktiboak dituzte, erabiltzaileak bere saioak gorde, helburuak programatu, sari birtualak jaso edo musika entzun ahal izan dezan.

DAVID ORTEGA, Txingudi futbol selekzioko arduradun teknikoa:

“Gazteen arteko harremanak sustatzea da helburua”

Kirol ekimen bakana da Txingudi futbol selekzioa. Mugaz gaindiko eskualde bateko gazteak elkartzen ditu. Irungo, Hondarribiko eta Hendaiako Udalek martxan jarri dute, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren bidez. Eskualdeko futbol elkarte ezberdinetako gazteak aritzen dira bertan, eta Donostiako Realak kudeatzen du proiektuaren zuzendaritza teknikoa. David Ortega entrenatzaile irundarra da arduraduna. Abenduaren amaieran, Landetxa Kirol Elkarteak antolatzen duen Gabonetako Lehiaketan parte hartu du kadete mailako taldeak.

Datorren udaberrian beste bi lehiaketatan parte hartuko du eskualdeko selekzioak. Martxoaren 31tik apirilaren 2ra, 2005ean jaiotakoak Hendaian lehiatuko dira Les Eglantins elkarteak antolatzen duen Pâques txapelketan. Hurrengo astean, apirilaren 7an eta 8an, 2004an jaiotakoek Landetxaren Aste Santuko Txapelketan parte hartuko dute.

Zein dira ekimenaren helburu nagusiak?
Gizarte helburuak ditu. Lurralde ezberdinetako gazteak elkartzea, eta haien arteko harremanak sustatzea, azken finean, hizkuntza edo kultur aldetik egon daitezkeen hesiak apurtuz.

Nola hautatzen dituzue jokalariak?
Harreman zuzena dugu elkarteekin, eta oreka bilatzen saiatzen gara, kirol mailaren eta jokalarien jarreraren artean. Klubetan portaera ona duten jokalarientzat saria izan dadin nahi genuke.

Txapelketetarako entrenatzen al duzue, soilik?
Klub ezberdinak inplikatzen ditu proiektuak, eta zaila da urte osoan zehar entrenamenduak egitea. Hortaz, momentu puntualak izaten dira; txapelketetarako prestatzen ditugu. Hiru entrenamendu saio egiten ditugu: lehenengoa elkar ezagutzeko, eta beste biak txapelketa prestatzeko.

Entrenatzeko era ezberdinak, kultur eta hizkuntza ezberdinak... Nola uztartzen duzue dena?
Entrenatzaileok hiru hizkuntzetan moldatzen gara, eta ez dugu arazorik haiekin komunikatzeko. Haiek ere elkar ulertzen dute, hizkuntza batean edo bestean.

Normalean, haien artean elkar ezagutzen dute. Eskola edo klub berdinetan daudelako, elkarren aurka aritu direlako, edo beste arlo batzuetan kointziditu dutelako. Gainerakoak segituan murgiltzen ditugu taldean, eta ondo egokitzen dira.

Zein norabide jarraituko du proiektuak, datozen urteetan?
Klubek urtero proposatzen dutenaren arabera egingo dugu aurrera. Gure asmoa da urtero ahalik eta klub eta gazte gehiagorengana iritsi ahal izatea. Entrenamendu saioak, adibidez, instalazio ezberdinetan egiten ditugu, gazteek senti dezaten haien klubak inplikatzen direla.

Zein da Realaren jarrera, ekimenarekiko?
Reala urte osoan zehar ari da klubekin elkarlanean. Klubei babesa eta laguntza eskaintzen saiatzen da. Kasu honetan, Txingudiko elkarteek planteatu zutenean Realak bultzada txiki bat ematea, klubak ez zuen bi aldiz pentsatu. Primerako ideia iruditzen zaigu.

Bidaia: Munich, neguko paradisua

GORKA MARTINEZ
unpaisenmimochila.blogspot.com

1.400.000 biztanlerekin, Alemaniako hirugarren hiria da, populazioari dagokionez, Berlinen eta Hanburgoren ondoren. Alemania hegoaldean dago, Bavarian, Austriarekin muga egiten duten Alpeetatik gertu. Bizitza maila altua da bertan, janarian eta garraiobideetan nabarituko dugu, besteak beste. Alemana da hizkuntza ofiziala, baina bavariera ere hitz egiten da. Ingelesarekin ez dugu arazorik edukiko, ia mundu guztiak hitz egiten baitu bertan.

Hezkuntza eta errespetua dira gizarte alemaniarraren zutabeak. Horregatik, *bitte* (mesedez) eta *danke* (eskerrik asko) une oro entzungo ditugu. Urtarrilean, eguzkia jartzerakoan, tenperaturak 0º azpikoak izan daitezke, eta elurra ere egin dezake maiz. Kasu horietan, garagardotegi batean babesa hartzea aukera ona izan daiteke. Ezin ahaztu, Munich Oktoberfest famatuaren jaioterria dela. *Bier* edo garagardoa, txerri-ukondoarekin edo saltxitxa zuriarekin lagundu dezakegu.

Municheko aireportuko tren geltokira iritsi bezain pronto, 10 bidairentzako ticket-a erostea komeni da. Trenetarako eta autobusetarako balio du. Bi tren mota daude: U-Bahn (metroa) eta S-Bahn (aldirietako trena). Geltokiak eta trenbideak elkarbanatzen dituzte hiri erdian.

Bisitari ekiteko, Odeonsplatz izan daiteke leku egokia. Kontzertu areto handia zegoen bertan, eraiki zutenean. Desfile eta hileta handien kokaleku izan da historian zehar. 1923ko estatu kolpeak porrot egin zuen bertan, eta Adolf Hitler zauritua izan zen. Zenbait urte beranduago, hitzaldi jendetsuak eman zituen bertan.

Hofgarten lorategietatik aterako gara, Residenz-eraino. Bavariako errege-erreginen egoitza ohia da. Gaur egun, dekorazio museoa da. Ressidenzstrasse eta Max-Joseph-Platz zeharkatuko ditugu. Marienplatz hiriaren bihotza da, eta bertan, udaletxe berria eta zaharra ikus daitezke. Frauenkirche ere ikus daiteke, Municheko katedrala, 1494an eraikia. Plazatik 500 metrora dago. Viktualienmarkt merkatura hurbilduko gara, eguna amaitu aurretik, produktu alemaniarrak erosteko.

Laburrak eta hotzak dira egunak, beraz, Hofbräuhaus-en bilatuko dugu babesa. Hiriko garagardotegi famatuena da, 1500 urte inguruan eraikia. Platzl-en dago, Marienplatz-etik bost minutura, oinez. Giro bikaina dago bertan, musikarien zuzeneko musikarekin eta Prost! (topa) oihuekin. Munich deskubritzen jarraitzeko abiapuntu bikaina izan da gaurko eguna.

Irungo La Salle LH2

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK

Félix Manso
IBARLA

Meaka auzoa, 9 – 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com
www.felixmanso.com

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

Burujabetzari

(GURE ESKU DAGO eta HARTU HITZA dinamiketan ari diren lagunak gogoan)

Egilea: Aitor Errazkin Vicente

1.-
Eskola-ume orori
berdin du zein herritan
galdetzen zaio zer izan
nahi lukeen handitan.
Neurri bereko galderak
nahi ditugu karrikan,
inork inoiz jarriko ez
dituenak auzitan.

Neurri bereko galderak
nahi ditugu karrikan
elkarbizitza kolokan
den adina alditan.

2.- Kultura eta hizkuntza
propio baten jabe,
baina haiek babesteko
eskubiderik gabe.
Nahiz denborak hatz artetik
egiten digun alde,
iraganaren lezio
oro daukagu alde.

Nahiz denborak hatz artetik
egiten digun alde,
oraina eta geroa
gure eskuetan daude.

3.-Denboraren menpe bizi
gara, gauza jakina,
baina ezerk ez gaitzala
muga horrek adina;
beste inork ezarria
bada gure ezina,
erantzuteko jadanik
badaukagu adina.

beste inork ezarria
bada gure ezina,
egin dezagun kateak
hausteko ahalegina.

4.- Txoria joan ez dadin
hego biak ebaki
hori zuzena ez dela
mundu osoak daki.
Nola uka dakioke
geroa herri bati?
Jolastokiak bihurtu
behar al dira lubaki?

Nola uka dakioke
geroa herri bati?
Hitza har dezagun eta
geurea erabaki.

El Pilar LH3

NIRE TXOKO KUTTUNA: LA CORNICHE

Egonezina sortzen dit zerbaitek, falta diren kontrolek, errekuperaketek, Gabonetako festibalak, eskola bukatzeak, Gabonek, familia ikusteak... Horrela sentitzen naizenean, Hendaiako leku goxo honetara etortzen naiz.

Lehenengo begiradan kolore beltzak, grisak eta berdeak sotzen dituzte harriek. Ura haserre dago, harriak pixkanaka-pixkanaka janez. Nire alboan dut urezko bainera erraldoia, urez bete-betea. Nire burua bueltaka dabil, zopa mugitzen duzunean bezala. Hurrengo astean dugu festibala, eta entsaiatzeko denborak lepoa hartzen digu ito nahian. Klase bakoitzean minutuak zenbatuak, ez dakigu zer egin. Urduri nago.

Begiak itxi ditut, haize naturala sentizeko. Ixilik, olatuen bidaia entzuten, harriak olatuekin borrokan. Pixkanaka-pixkanaka ilunabarrak gorputza ikutzen dit, oso ondo sentitzen naiz, ni bakarrik nago, gustura, lasai. Festibala nire sormenean galduta; ni, nire gauzetaz hausnartzen. Nire barruan bakarrik bihotza eta birikak sentitzen ditut. Ezerk ezin nau molestatu, horrela geratu nahi dut betirako.

Bapatean, begirada aurrera bota dut eta berandu da. Ideia berriak ditut festibalerako, eta gaur primeran egingo dut lo. Gauza bakar bat egitea falta zait. Oihukatu beharra daukat eta nire buruari esan diot: " Inorrek ez zaitu entzungo, oihukatuuuu!" . Eta esana egina, askoz hobeto sentitzen naiz.

PATRICIA CARCEDO

DBH 2- EL PILAR

Giza eskubideak landu dituzte Gazte Udalbatzan

4.DBHko 200 ikasle inguruk parte hartu du prestaketan, eta 25 ordezkari eduki dituzte udaletxean

Gazte Udalbatza egin dute abenduaren 19an Irungo Udaletxeko areto nagusian. Eguzkitza, San Vicente de Paul eta Toki-Alai ikastetxeetako 4.DBHko hogeita bost ikasle aritu dira bertan. Giza Eskubideak eta Balioak arloak antolatu du ekimena, eta Monica Martinez ordezkaria izan du buru. 2004an hasi zuen ibilbidea Gazte Udalbatzak.

180 ikasle baino gehiago aritu dira, hilabeteetan zehar, udalbatzan eztabaidatu dituzten gaiak ikastetxeetan lantzen. Parte hartze prozesu bat aurrera eraman dute, eztabaidatzeko eta bozkatzeko proposamenak adosteko helburuarekin. Dinamika ezberdinak landu dituzte ikasgeletan, horretarako. Elkarrizketa, argudiaketa, iritzien defentsa, entzumen aktiboa eta enpatia landu dituzte, besteak beste.

Hamabost proposamen eztabaidatu dituzte

Giza Eskubideak eguneroko bizitzan aplikatzeko hamabost proposamen egin dituzte ikasleek, ikastetxeetara, hirira, familiara, sare sozialetara eta harreman afektiboetara zuzenduak. Arlo horietan, hobetu beharreko egoerak identifikatu dituzte: arrazismoa, homofobia, matxismoa eta bullyinga, adibidez. Horiek izan dira, hain zuzen ere, Udalbatzako eztabaida gai nagusiak.

Aurtengo Gazte Udalbatzaren balorazio baikorra egin du Monica Martinez Irungo Udaleko Giza Eskubideak eta Balioak arloko ordezkariak: “Hiriko ordezkari politikoen rola har dezakete gazteek programa honen bidez, irundarron egunerokoan eragiten duten gaiei buruz eztabaidatuz. Prozesu hauek nola funtzionatzen duten uler dezakete, eta haien garrantziaz jabetu”.

“Prozesu hauek nola funtzionatzen duten uler dezakete, eta haien garrantziaz jabetu”

Monica Martinez, Giza Eskubideak eta Balioak arloko ordezkaria

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

300 lanpostu emakume eta gizonentzat

300 plaza Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente izateko

Eskaeren aurkezpena:

- Eskaerak eskuragarri egongo dira Polizia eta Larrialdietako Akademiaren www.arkauteakademia.eus web-orrian.

- **Epea:** 2018 urtarrilaren 30era arte (24:00 arte)

- **Adina:** 18 - 35 urte

Eskiatzera goaz!!! Ba al zatoz? Snowboard ere egingo dugu!

Noiz: urtarrilak 27, larunbata

Nora: Arettera

Adina: 12-22 urte bitarteko gazteak

Irteera: 6:00 (Biserako autobus geltokian)
Iristea: 20:00 (Biserako autobus geltokian)

Prezioa: 21,75 € (autobusa + materialaren alokairua + 2 orduko klasea + forfaita + asegurua)

Izen-ematea: Irungo Gaztelekuan edo IGazten (Irungo Gazte Informazio Bulegoan).
Helbide elektronikoaren bidez: gazteleku@irun.org. Izen-emate epea urtarrilak 19ra arte.

Informazio gehiago:
www.irun.org/igazte

Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaroa Irunen

Datak: urtarrilaren 22tik otsailaren 2ra

Ordutegia: 18:00etatik 21:00etara

Lekua: Dunboa ikastetxea (Martxoak 8 k., 1 - Irun)

Izen-emateak: 943 46 46 22 telefonoan

Matrikula: 110 euro

Informazio gehiago: DYA Gipuzkoa

Eta gainera, hala nahi duten ikasleek Sorospen titulua eskura dezakete kurtso amaieran egiten diren kalifikazio probak gaindituz gero

URTARRILAK

3

Zer?
Elur-bola erraldoia

Irungo hainbat tokitan kokatuta egongo da. Irundarrak barrenera sartu ahal izango dira, eta bertan, paisaia elurtuaz inguratuta argazkiak atera

Ordutegia?
11:00-13:30 eta 16:30-20:00

Non?
Larreaundin

Prezioa?
Doan

4

Zer?
Austen zine zikloa: Julian Jarrold-en "Becoming jane". Erresuma Batua, 2007; 120 min.

Non?
CBA Udal Liburutegian, San Juan Plazan

Ordua?
18:30ean

Prezioa?
Doan

4

Zer?
Gazte Gabonak programaren barruan Slime 2.0 ekimena antolatu dute Martindozenea Gaztelekuan. 12 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendua dago

Non?
Martindozenea Gaztelekuan
Elizatxo, 18 - Irungo La Salleren ondoan

Ordua? 17:30ean

Prezioa?
Doan

5

Errege Magoak

- 18:00: Tren geltokian, ERREGE TRENEAN IRITSIKO DIRA ERREGE MAGOAK. Ondoren, Zubimuxuko errotondara joango dira

- 18:30: Letxunborro hiribidean hasiko da ERREGE DESFILE TRADIZIONALA. Ibilbidea Hondarribi kalean barrena, eta Colon ibilbidetik egingo dute, eta San Juan plazan bukatu. Erregeek udaletxeko balkoitik agurtuko dute

Prezioa: Doan

12

Litus y Pirta

´Irun Zuzenean´ zirkuituaren baitan, Andreu Buenafuenteren Late Motiv saioko bandaren kideak.

Ordua: 22:30etan

Non: Palace.
Iglesia, 8 - Avda. de Navarra

Prezioa:
Doan

13

BAKARRIZKETAK: AGUSTÍN JIMÉNEZ

Artista izan nahi duzu betidanik. Ez ezazu ukatu. Arrakasta lortzera etorri zara, nahiz eta kolesterolaz eta betetzen duten gauzez karga-karga eginda egon. Berdin du. Gaur da zure eguna. Agustín Jiménezek eskolak eman zizkizula esan ahal izango duzu. Profesional baten moduan barre egiten ikasiko duzu gaur. Gezurretako eta konpromisoko irribarretxorik ez. Zatoz. Mesedez.

Ordua: 20:00etan.

Non: Amaia KZn.

Prezioa: Doan

Salmenta:

- Interneten bidez
- Irungo Turismo bulegoan, Luis Mariano plazan
- Amaia KZren leihatilan: ikuskizunaren egun berean

Urtarrilaren 14ra arte

Erakusketa: Alfonso Murillo

Zer: Alfonso Murilloren pintura erakusketa. Diseinu grafikoko eta argazkigintzako ikastaroak ere egin ditu, nahiz eta orain, margoketan dagoen buru belarri sartuta, ez ditu bazterrean uzten azken bi hauek, hiru munduak fusionatuz

Ordutegia:
Ostegunetik larunbatera, 19:00etatik aurrera

Non:
Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa
Sarjia, 1, atzealdea

Prezioa: Doan

Gabon Zoriontsuak
eta urte berri oparoa
opa dizkizue
IRUNEROK